

## EDITORIALA

### Jokin Apalategi, *Uztaro* aldizkariaren zuzendaria

Lehen bi artikulua salbuespen, *Uztaro* 54 zenbakiko gainerako artikulua guztiak, *Uztaro* 53an hasitako parte-hartzearen inguruko gaiaren jarraipena dira eta Euskal Herrian gauzatzen diren partaidetza-saioak ikertzen dituzte. Lehen hartan nolabait parte-hartzearen alde teorikoa nagusitzen bazen ere, oraingoan alde praktikoa lantzen duten lanak plazaratzen ditugu. Adieraziak adierazi, igaro gaitzen gure ohiko aurkezpen-gidoia jarraitzera.

“Boterea eta lidergoa antolakuntzetan: kontzeptuak, taktikak, emaitzak” artikuluan, antolakuntza orokorretan langileen jokabidea eragiteko erabiltzen diren sei mekanismo garrantzitsuenak aztertzen dira. Hasteko aditzera ematen da azken hamarkadotan lidergoaren azterketak garrantzia eta aniztasuna hartu duela enpresaz eta antolakuntzaz kaleratzen den literaturan. Artikuluaren egileek lidergoaren definizio propioa proposatzen dute eta erakusten digute ere antolakuntzek botere-egitura bat behar dutela. Sei botere-mota konbinaturik erabili ohi dituzte. Taula baten bidez, horietariko bakoitzak piztu ohi duen jarrera eta indarrean izan ohi duen balio nagusia ere islatzen zaizkigu. Nolanahi ere, botere-mota egokiena izendatzea zail samarra gertatzen da. Hori bai, lidergoari botere-mota bat baino ez dagokio. Pizten duen jarrera, berriz, identifikazioa da. Liderrarekiko konfiantza ernatzen zaienean sortzen da. Euren arazoak konpondu eta premiak asetzeko gauza dela sinetsi behar dute. Lidergoaren boterea sarritan karguan oinarritutako boterearekin batera izaten da. Hala ere, ez da sarrien eta zigorren baliagarritasuna gutxietsi nahi. Eraginkortasunaren aldetik jakituria/trebezia, lidergoa eta autokontrola dira egokiagoak. Bi botere-iturri daude: antolakuntzarena eta pertsonak berak berez daukana. Jokabidean eragiteko prozesuen artean, berriz, hiru nabarmendu behar dira nagusiki: konpromisoa, onspena eta erresistentzia. Liderraren taktiken artean limurtze arrazionala eta emozionala bereizten dira. Parte-hartzea taktika limurtzaile gisa ikus liteke ere. Mesede-eskaeraren taktika ere arrakastatsu gerta liteke.

Trukeak ere badu baliorik, besteek balioesten duten zer den jakinez ordainsari gisa erabilia. Kontaktuen bidez ere ohikoa da enpresan errespetu handia zor zaien pertsonak limurtzen eta bere proiektura biltzen ahalegintzea. Izaera bizibizia edota haserrekorra duten pertsonekin funtzionatu ohi du ere adiskidetze taktikak. Taktikak erabiltzeko noranzkoen artean goranzkoa, alboranzkoa eta beheranzkoa bereizi behar dira. Taktikak erabiltzeko sekuentziei dagokienez, bigun eta positiboekin hastea gomendatzen da. Taktiken eraginkortasunari dagokionez, prozedura indibidualarena eta konbinatuarena nabarmentzen dira. Limurtze arrazionalak arras ongi funtzionatzen du estrategia bigunekin konbinaturik.

“Munduko hizkuntzen izenak euskaraz” artikuluan Euskaltzaindiak arautu gabe dituen hizkuntza-izenak euskaraz finkatzeko irizpide-proposamen bat lantzen da. UNESCOk sustatu eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako *Munduko hizkuntzei*

*buruzko txostenean* milaka hizkuntza aipatzen badira ere, ez daude munduan diren guztiak, ezta gehienak ere.

Bi izan dira ingelesezko eta gaztelaniazko heteroglotonimoen terminoak biltzeko iturriak. Batetik, galdetegiak bete eta txostenak idatzi dituztenek emandakoak. Bestetik, nazioarteko argitalpenak. Txostena idazterakoan, egokiena hizkuntzak euren autoglotonimoez izendatzea zela erabaki arren, ez zaio horri eutsi. Arrazoi simple batengatik, hainbat hizkuntzak ez dutelako autoglotonimorik. Euskarazko heteroglotonimoen aukeraketa egiteko irizpide batzuei jarraitu zaie. Euskaltzaindiak erabakitako edo proposatutako euskarazko hizkuntza-izenak bere horretan erabiltzea. Onetsi ez dituenetan, azken aspaldian euskarazko testu eta idazkietan erabilitako heteroglotonimoak jasotzea. Proposatu ez dituen gainerako heteroglotonimoetarako, ingelesezko heteroglotonimoetan oinarritutako egokitzapena proposatzea. Hizkuntza-taldeen izenak euskaraz adierazteko, antzeko irizpideari jarraitzea, baina oraingoan *-(t)ar* atzizkia erantsiz. Proposatzen dugun zerrendan hiru zutabetan bildu dugu informazioa, eta euskarazko proposamenaren araberakoa ordena alfabetikoan eman da. Ezkerretik eskuinera, lehen zutabea euskarazkoa, bigarrenean ingelesezkoa eta hirugarrenean gaztelaniazkoa. Lanak guztira 1.000tik gora euskal izen biltzen ditu.

“Parte-hartzea, nortasuna eta kontra-portaera Iparraldean” artikuluan azken bi hamarkadetan Iparraldean gertatu den aldaketa politikoa deskribatzen da. Prozesu auto(su)gestiboa izendaturiko lehen gogoetan azaltzen zaigu tokiko agintariak lurraldeari boterea (erakunde bat) emateko izan duten borondate falta izan dela 1992an zenbait eragilek garapen-estrategiak adosteko modu parte-hartzailea indarrean jartzearen pizgarria. Hala ere, 80ko hamarkadan agerian dago hainbat elementuren inguruan garatzen doan krisi sakona: lurraldearen desegituraketan, ekonomiaren ahulezian, demografiaren gorabehera kontrajarrietan, euskararen eta kulturaren itolarrian, jendetzaren partiketa polarizatueta. Garai berean inoiz baino argiago Iparraldeak duen nortasun indartsua nabarmentzen da. Ondotik, lurralde-eragileak bereiziz haien arteko harremanak zehazten dira. Frantziako eredu instituzionalak zentrotik periferiara doazen zirkulu zentrokideetan funtzionatzen du. Hala ere, zentralismo horrek ez du eragozten hainbat egitura deszentralizatu agertzea. Bestalde, zentroaren eta periferiaren arteko bitartekariak diren notableen politika-mota sortzea ahalbidetzen du. Herri txikietako hautetsiek notableekiko klientelismoa eragin dute. Eta gizarte-eragileen produkzioak daude: Baionako Merkataritza eta Industria Ganbera; Hemen eta Herrikoi enplegu-sustatzaileak; ELB sindikatua; Seaska, Ikas, Deiar eta Euskal Konfederazioa; Euskal Kultur Erakundea... Parte-hartzearen prozesuaren abiapuntua krisia gainditzeko helburu bateratuan oinarritzen da, diagnostiko komuna eginez eta Iparraldeko garapena lurraldea bere osotasunean hartzen duten politika publikoetan sustatuz. 1992tik aitzina logika orokor eta antzekoari jarraitzen dioten hiru dokumentu aipagarri argitaratzen dira. *Euskal Herria 2010* txostenean joera desberdinetako hainbat pertsonalitatek orain arte abertzaletasunaren esparruan soilik defendatzen ziren hainbat kontu onartzen dituzte. Poliki-poliki, eztabaida politikoaren funtsa nola bermatu garapena edo politika publikoa izatetik, nork bideratu behar duen izatera pasa da. Iparraldeko garapena bideratzeko estrategia parte-hartzaileak, 1992tik bertako agintariak babestutakoak, *policy windows*ak zabaltzen ditu. Estrategia parte-hartzaileek lurraldearen zentralitatea ahalbidetzen dute Iparraldeko eragile

gehienen praktiken jomuga bihurtuz. *Ehunen Deiak* hautetsi sozialisten eta kristau-demokraten, hots, indar ekonomikoaren eta euskal kulturaren aldeko mugimenduaren ahaleginak elkartzen ditu 1999. urtean. *Demoen* desobedientziaren aldeko apustua kaleratzen da. 2002. urtearen azkenean Raffarin-en deszentralizazio-prozesuarekin aukera berriak agertzen dira. Lamassoure-k egindako proposamena aho batez onartzen da: euskararen ofizialtasuna, eta Iparraldea entitate bezala Estatuak “ezagutu eta berrezagutu” dezan. Estatuak ez die erantzungo egindako eskariei. Orduan, *Baterak*, estrategia ez-konbentzional bat martxan jartzea deliberatzen du. Beste bide batzuk erabiltzen hasiko dela aurreratzen du, tartean desobedientzia zibila. Iparraldeko eragileek erasotzeko jarrera eta logika pro-aktiboa hartzen dute: horren lehenengo emaitza Euskal Herriko Laborantza Ganbara izango da 2005eko urtarrilaren 15ean. Konklusio gisa esan daiteke Iparraldean estrategia parte-hartzaile batek ahalbidetu duela lurraldea eragile guztietarako gauza erreal bihurtzea.

“Administrazio publikoa eta parte-hartzea: Altzako Garapen Komunitario Plana (Donostia)” artikulua administrazioarentzat parte-hartzeak duen erronkaz hausnarketako bat da. Ustea baita, baldin eta esparru publikoa ez badugu talde-arduratzat hartzen, ez dugula pausorik emango parte-hartzearen inguruan. Konpromiso politikoa zein konpromiso teknikoa ezinbestekoak dira. Argi baitago aldaketa behar-beharrezko dugula aurrera egiteko. Parte-hartzearen testuingurua aztertzen badugu, globalizazio-joera orokorra maila lokala indartzen ari da. Horrela, bizikalitatea, denon, herritarren eta administrazioaren, helburu suertatzen ari da. Ordezkatze-sisteman oinarritutako demokrazia eskasa zaigu. Demokrazia parte-hartzaile batek denon artean guregan eragina duten gaiak aurre egitea eskatzen du. Aldi berean, hala banakoei nola talde-identitateei loturiko komunitate-idea gaurkotasunez ageri zaigu. Parte-hartzea, gertakariaren jabetza eta kontzientzia, eta, azkenik, aldaketa, nahitaez lotuta doazen elementuak dira. Beren ezaugarrietariko batzuk dira: hezkuntza-dimentsioa, aktore izatea, aldaketaren alde egotea, lidergoa eta ekimena bultzatzea, proiektu zehatzak edukitzea. Altzari dagokionez, datu deigarrieneraiko bat Donostiarekin bizi izan dituen desanexio-garaiak izan dira. Baita eduki izan duen hiri-garapena ere. Immigrazioak aldaketa ugari bideratu zituen eta, ondorioz oso garapen kaotikoa izan zuen. Kontuak kontu, egun, Altzako proiektu garrantzitsuen protagonista da. Hori, Altzako Garapen Komunitario Plana martxan jartzeko hiru pertsona kontratatzen direnean gauzatzen da. Herritarren parte-hartzeari buruzko esperientzia bat da. Metodologikoki Planak lau atal ditu: Diagnostikoa, Plangintza, Ekintzen gauzatzea eta Ebaluazioa. Horrek guztiak herritarrak elkarrekin lan egiteko bidea ireki zuen. Derrigorrezkoa baita aktore guztien arteko konpromisoa.

“*NIMBY Power: Zornotzako erreferenduma eta ukazioaren indarra*” artikulua Zornotza Bizirik izeneko plataformak eraikitako erresistentzia-indarraren prozesua aztertzen du. 2000ko martxoan 600 pertsona egon ziren aurkezpenean. Bi urte eskasean irlandarrek jartzen zuten zentral termikoaren aurka sekulako mobilizazioaren jabe bilakatu zen. Inolako babes instituzionalik gabe erreferendum bat antolatu zuen eta 5.445 pertsonak botoa ematea lortu zuen, eroldaren % 43k, hain zuzen. Arrakasta horren arrazoien bila jarrita hainbat agertzen dira, baina guztien gainera, noski, sektore anitzeko jendearen biltoki gertatzea, eta osasun pertsonalaren kezkarrekin bateratzea azpimarragarri egiten dira. Ekologismoaren

inguruan eraikitzen diren mobilizazioak funtsean antropozentrikoak dira. Immigrazioaren eta industrializazioaren urteek utzitako fakturak aski ongi ordaindu direnean, herri kolpatua izatearen kontzientzia dago zornotzarren artean. Zentral termiko berriari dagokionez, kaltegarria izan daitekeen “munstro” berri bat egin nahi ote duten kezka sortzen da. Zentral termikoaren egitasmoaren kasuan erakundeek erabilitako *outputa* erabakigarria izan zen. Erakundeek jokaturiko rola zalantzati izatetik zetorren nagusiki. Protestak, ekintzak eta aldarrikapenak Jaurilaritza, Aldundia eta Udalari begira egin ziren. EAJk sekulako kontraesanak eduki zituen prozesuan zehar. Alderdiko alkatesa eta zinegotziei erreferendum bat konbokatu nahi izateagatik kanporaketa-espeditzea zabaldu zitzairen. Eginkizun nabarmena jokatu zuen ere “Hilero” aldizkariak. Zuzendaria EITBko kazetari ezagun bat zen. Zornotza Bizirik elkartearen diskurtsoarekiko oso jarrera baikorra azaldu zuen bere orrialde lokaletan. Hasieratik, aipatu kazetaria bezala, hainbat lider sozial integrazten da dinamika horretan, eta pluraltasun eta dedikazio monografikoaren irudia ematen jakingo da. Erabakiak aho batez hartzen ziren, eta hori posible ez zenean, bozketaren bidez, baina denek onartuz gehiengoaren erabakia. Adinez parte-hartzaileen artean adin ertaineko jendea izan zen nagusi. Emakumeen rol berezitu ere azpimarragarri gertatzen da. Erreferendumaren ekintzari dagokionez, esan 5.352 ezezko botoak izan zirela, 53 baiezkoak eta 21 boto baliogabeak eta 19 zuri. Egoisten ekologismoa ote Zornotza Bizirik-ek defenditzen duena? Ez diogu horrela irizten. Etxean nahi ez duguna ez diogu inori desiratzen gogoaren kontra, diote behin eta berriz. Mugimendu ekologista honek global/lokal dikotomia gainditzen du. Erresistentzia-identitate hauek oso garrantzitsuak izango dira gizarte globalean “identitate-proiektuak” sortuko dituztelako. Geroan, honelako prozesu kontsultiboak ugaltzea eta ofizialtasun bat edukitzea zeharo txalogarria dela deritza. Gau egun ukazioan espresatzen baita demokrazia globalaren aukera, eta subjektu hauen indarra ukazioaren terminoetan neurtu behar da, agian oraindik denbora luzean.

“Kultura-kudeaketa Beran: eredu parte-hartzailea” artikuluan herritarrak kultura sortzera, agente aktiboa izatera, zuzenean parte-hartzera nola bultzatu izan diren erakusten da. 1990 aitzinetik, udalak diruz laguntzen zituen ekitaldi kulturalak, eta taldeek egiten zuten lan. Baina 90eko hamarkadaren lehenbiziko erdian kultura-mugimenduan nolabaiteko pizkundea gertatu zen. Talde ugari sortu zen herrian, bakoitza arlo batean espezializatuta kultura-eskaintzaren dibertsifikazioa ugarituz. Baina, aldi berean deskoordinazioa handituz joan zen. 1997an hainbat talde elkar-tu eta koordinazioaren beharra azpimarratu zen. Udalak proposamena onartu arren, ez zuen gauzatu. Egoera txartzen joan zen. 99ko udal-hauteskundeetan Herriko Etxean politiko aldaketa nabarmena gauzatu zen. Politika horretan, parte-hartzea izan da ardatz nagusia. 2002ko ekainean Gogoeta Jardunaldiak antolatu ziren. 35 pertsonak hartu zuten parte. Kultura Batzordearen osaketaz gero, herri-mugimendu guztiak batzea lortu zen. Erakundeetatik nahi beste pertsona joan daiteke batzordera. Gainerako herritarrek ere parte har dezakete. Erabaki guztiak adostasunez hartzen ahalegintzen dira, eta hori lortzen ez denean, botazio bidez egiten da. Egitekoa herriko kultura-eskaintzak proposatzea da. Kultur Batzordeak diagnostikoa egiten du. Helburuak finkatzen dira. Talde bakoitzak bere proposamenak egiten ditu. Plangintza diseinatzerakoan herriko taldeen zein artisten sormenak du lehentasuna. Herriko kultura-talde guztien inplikazioa erabatekoa izan da prozesuan. Taldeei ziurtasuna eragin die, baina gehiegizko erosotasunean

erortzeko arriskua agertu da. Kultura Batzordearen esperientziatik abiatuta, udaleko gainerako batzordeetara zabaldu da funtzionamendu-eredu hau legegintzaldi honetan. 120 herritar baino gehiago ari da lanean, (% 3,25 inguru). Herritarrek aurrekontu osoaren % 34,28 kudeatuko dute zuzenean. Lan egiteko modu hau naturalki sortu izan da. Emaidza bat ekarri du: gatazkaren kudeaketa egokiagoa eta herriko giro hobea, eta konfiantza handiagoa taldeen eta pertsonen artean.

“Urdabaiko Biosfera Erreserbaren esperientzia” artikuluan lurraren defentsan dihardutenei eskaintzen zaizkien aukera estrategikoez hausnarketa egiten da. Urdaibai Erreserbaren sorrerako legeak dioenez, babes-objektua testuinguru sozioekologiko definitu bat da. 22 euskal udalerrri bizkaitar barne ditu. 264 kilometro karratu hartzen ditu. Ingurumen-balioak mantendu eta hobetzeko aukera emango duen planifikazio integratu bat ezartzea da helburua. Garapen-eredu mendebaldar kontsumista hegemonikoarekin guztiz kritikoa den eredu juridikopolitikoa da beraz aitortua. Legezko parte-hartzearen egitura Zaingo Batzordean gauzatzen da. Osoko bilkurak, batzorde iraunkorrak, eta lankidetzak-kontseiluak osatzen dute. Bestalde, politika publiko baten dinamikaren koherentzia-maila aztertzean, hau zaigu beharrezkoa: ezarri nahi den lurralde- eta gizarte-eredu iraunkor horren adierazle makrosistematikoak diseinatzea. Basogintza da gaur egun bioaniztasunaren ondarea indartu ala kaltetu dezakeen politika publiko garrantzitsuena. Zer da errealitatea? Landaketa exotiko intentsiboek 100 metroko muga errespetatu behar bazuten ere, 2003ko otsailaren 11ko Dekretuaren ondotik, 60 metrokoa bakarrik errespetatu behar dute. Atzerakada nabarmena gertatu da orduan. Ez da eraso bakarra. 2003ko uztailaren 22ko Dekretuak Kanala auzoko 28 hektareako lur ezhirigarriaren desaiikapena onartzen du. Ondare kultural eraikiaren eta arkeologikoaren desagertzeak airean jarraitzen du. Ondorioarazi behar dena hau da: klanen politika nagusi dela oraindik. Udalerriz gaindiko partaidetza publikoaren joera eta dinamika antzua ageri zaigu.

“Gazteak eta gazteen parte-hartzea” artikuluan ikuspegi eraldatzaile batetik subjektu aktibo eta bizien deskribapena egiten da. Honela esaten zaigu: gazteen egungo errealitate objektiboa baina batez ere subjektiboa laburbil dezakeen kontzeptua ziurgabetasuna da. Horregatik egunerokoa topera bizitzea eta erlazio afektibo hurbilak hain garrantzitsuak izatea ulergarria da oso. Etorkizuna, berriz, mehatxuaren irudipean agertzen zaie. Egoera horrek elkartasunerako eta mobilizazioetarako zirrikitu gutxi uzten ditu eta parte-hartzea eta gazte-mugimendua bultzatzeko eta eraikitzeo aukera eremu isolatuan kokatzen da. Pertsonen joera indibiduala nagusitzen da kolektiboa eta komunitario den orenen kalterako. Ideologiak eta jarrera militanteak baztertzen dira. Horrela, gizarte-mugimenduek irtenbiderik gabeko egoera batean ikusten dute beren burua. Alderdi eta praktika politikoetatik oso urrun daude. Horiek ez dute jasotzen gazteen interesa ezta konfiantzarik ere. Erlatibismoa da nagusi. Erlitioak bizitza ulertzeko bide bezala indarra galtzen ari dira. Pentsamendu bakarra ezartzen da neoliberalismoaren axiometan eta kontsumoaren arauetan finkaturik. Ahazteko saiakerak eta harreman berriak sortzeko gogoak bat egiten dute gazteentzako berezko espazio nagusia den horretan, gauean alegia. Nola bultzatu gazteen parte-hartzea ikuspegi eraldatzailetik? Erantzuna globala izan behar da. Izan ere, gazteen % 35ek elkarte batean hartzen du parte. Ezaugarriei dagokienez, mugimendu hori aberasgarria da, askotarikoa, kritikoa, eraldatzailea eta independentea. Autonomia bultzatzea

da egokia. Gizartean gazteak protagonistak izatea eta euren ikuspegitik eragile eraginkor bihurtzea da gazte-mugimenduak egiten duen eta gizarte osoak jaso eta erantzun behar duen eskaera eta erronka. Gazte-planak badaude baina ez dira egokiak eta aski. Gazteen, botere publikoen eta, ahal den neurrian, gainerako gizarte-eragileen babesa jasoko duen akordioa eskatzen da. Joko-arau minimoak izaten saiatzea, eragile guztiek konpartituak direnak lortzea, denon ardura da. Administrazioarekin harreman bereziak nahi ez dituzten gazteei parte hartzeko dituzten egitasmoak eta ekimenak sustatzeko aukera ahalbidetzeko beharra dago zeren esparru horietan mugitzen diren gazteak sormen, konpromiso eta adorea aldetik, gauza askotarako aitzindariak eta erreferenteak baitira.